



EBAZPENA, 2019ko OTSAILAREN 28koa, HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIARENA, DANTZAKO GOI-MAILAKO ARTE-IKASKETAK EGITEKO SARRERA-PROBETARAKO DEIA EGITEN DUENA, 2019. URTEKO PROBA ANTOLATZEKO, EGITEKO ETA EBALUATZEKO BEHARREZKO ARGIBIDEAK EMATEN DITUENA ETA 2019-2020 IKASTURTEAN IKASLEAK ONARTZEKO PROZEDURA EZARTZEN DUENA.

Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, Hezkuntzari buruzkoak, 54., 55., 56. eta 57. artikuluetan xedatzen duenez, goi-mailako arte-ikasketak egiteko, beharrezkoa da "batxiler-titulua izatea edo Unibertsitatean sartzeko 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gaindituta izatea" eta "berariazko sarbide-proba gainditu izana". Horixe xedatzen du urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuak ere, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak arautzen dituen goi-mailako arte-ikasketen antolamendua ezartzen duenak, 12. artikuluan.

Bestalde, 2/2006 Lege Organikoko 69.5. artikulua dioenez, nahiz eta ez egiaztatu batxiler-titulua dutenik edo Unibertsitatean sartzeko 25 urtetik gorakoentzako sarrera-proba gainditu dutenik, hemezortzi urtetik gorakoek goi-mailako arte-ikasketak egin ditzakete baldin eta hezkuntza-administrazioek arautu eta antolatutako berariazko proba bat gainditzen badute -proba horrek egiaztatzen du ikasleek heldutasuna lortu dutela Batxilergoaren helburuetan eta badituztela ikasketak probetxuz egiteko beharrezko ezaupide, trebetasun eta gaitasunak-. Gainera, ikasketa bakoitza egiteko berariazko sarrera-proba egin behar dute horrelako ikasketak egin nahi dituztenek.

Azkenik, urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuak, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak arautzen dituen goi-mailako arte-ikasketen antolamendua ezartzen duenak, 11. artikuluan xedatzen duenez, maiatzaren 14ko 632/2010 Errege Dekretua argitaratu zen, Dantzako goi-mailako arte-ikasketen oinarriko edukia arautzen duena.

632/2010 Errege Dekretuko 5. artikulua arabera, Dantzako goi-mailako arte-ikasketak egiteko berariazko sarrera-probak neurtzen du ea ikasleek badituzten ikasketak probetxuz egiteko beharrezko heldutasuna, ezaupideak eta gaitasunak, eta hezkuntza-administrazioek arduratu behar dute probara deitzeaz eta hura antolatzeaz, egiteaz eta ebaluatzeaz. Horregatik, zera

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. Xedea eta aplikazio-eremua.

Dantzako goi-mailako arte-ikasketak egiteko berariazko sarrera-probara deitzea eta deialdia arautzea da ebazpen honen xedea, baita



2019-2020 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoan ikasleak onartzeko irizpideak ezartzea ere.

Bigarrena. Probaren helburua eta ondorioak

1. Goi-mailako arte-ikasketak egiteko sarrera-probak neurtzen du ea ikasleek badituzten ikasketak probetxuz egiteko beharrezko heldutasuna, ezaupideak eta gaitasunak.

2. Proba gainditzen badute, horrelako ikasketak ematen dituen Estatuko edozein ikastegitan sar daitezke ikasleak, betiere, tokirik badago.

3. Dagokion ikasturtean bakarrik balio du probak.

Hirugarrena. Ikasleek proba egiteko bete beharreko eskakizunak

Honako eskakizun hauetako bat betetzen duten ikasleek egin dezakete Dantzako goi-mailako arte-ikasketak egiteko berariazko sarrera-proba:

1. Batxiler-titulua izatea.

2. Unibertsitatean sartzeko 25 urtetik gorakoentzako sarrera-proba gainditu izana.

3. Goi-mailako arte-ikasketak egiteko eskakizun akademikoak egiaztatzearen ordezkoko heldutasun-proba edo lanbide-heziketako goi-mailako prestakuntza-zikloak egiteko sarrera-probaren zati komuna gainditu izana.

Laugarrena. 2019eko proba egiteko izen-ematea: prezio publikoak, ikastegia eta epeak

1. Izena emateko epea apirilaren 29tik maiatzaren 24ra bitartekoa izango da.

2. Izena emateko tokia Dantzerti, Antzerki eta Dantza Goi Mailako Eskolan, Bilbon.

3. 2016.eko maiatzaren 16ko Aginduak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak prestatzen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzen duen Agindua hirugarrenez aldatzekoa, xedatzen duenaren arabera, deialdian parte hartzen duten ikasleek 28,02 euro ordainduko dute, sarrera-probaren prezio publiko gisa.

4. Dantzako goi-mailako arte-ikasketak egin nahi dituzten ikasleek izena emateko eskabidea beteko dute, I. eranskineko ereduaren arabera.

5. Izena emateko eskabideak aurkezteko epea amaitu eta bost egun baliiodunera, proba egiteko onartutako ikasleen zerrenda argitaratuko da Dantzerti, Antzerki eta Dantza Goi Mailako Eskolaren webgunean. Era berean, dagokionean, onartu gabekoen zerrenda argitaratuko da, ikasleak ez onartzeko arrazoiak emanda, eta 48 orduko epea emango da akatsak zuzentzeko.



Bosgarrena. Sarrera-probaren egitura

Bi zatik osatuko dute Dantzako goi-mailako ikasketetako Koreografia eta Interpretazioa espezialitatea egiteko berriazko sarrera-proba:

1. zatia

Epaimahaiak proposaturiko dantzaren inguruko testu baten azterketa idatzia egin beharko dute aurkezten direnak. Aldez aurretik Dantzertiko webean (www.dantzerti.eus.) lagungarria izan daiteken bibliografia bat proposatuko da.

Izangaiaren heldutasuna eta ezagutza ebaluatuko da, eta, horretarako, kontuan hartuko da ea kontzeptuak ulertzen dituen, zer-nolako hizkuntza erabiltzen duen, loturak egiteko eta laburbiltzeko gaitasuna duen eta erantzunak egokiak diren eta azterketa kritikoa.

Ikasleek 60 minutu izango dituzte gehienez ariketa egiteko.

Aurkezten direnek idatzizko proba euskaraz edo gazteleraz egin ahal izango dute, eta beraien aukera eskabide orrian adieraziko dute.

2. zatia

Praktikoa izango da, espezialitatearekin lotuta egongo da, eta, haren bidez, ikasleen ezaupide orokor, tekniko eta artistikoak eta interpretazio-ezaupideak neurtuko ditu epaimahaiak. Hiru ariketek osatuko dute (A,B eta C).

Balorazio irizpideak Dantzertiko webean egongo dira.

A ariketa

Dantzako ikasketa profesionaletako azken mailako bi eskola izango dira.

Epaimahaiak izendatutako adituek Dantza Klasikoko eskola bat eta Dantza Garaikideko beste bat emango dute.

Eskola bakoitzak 75 minutu iraungo du gehienez.

B ariketa

Ikasleek bariazio baten interpretazioa egingo dute, haien gaitasun artistikoa neurtzeko.

Bariazioak hiru minutu iraungo du gehienez.

C ariketa



Ikasleek inprobisazio-proba bat egingo dute, epaimahaiak proposatutako musika-konposizio batean edo beste euskarri batean oinarrituz. Probak hiru minutu iraungo du gehienez. Inprobisazio-probaren ondoren, epaimahaiak egoki deritzen galderak egingo dizkie ikasleei.

II. eranskinak dakar probaren egitura eta zati bakoitzari dagokion puntu kopurua.

Seigarrena. Sarrera-probaren kalifikazioa

1. Berariazko sarrera-proba gainditzeko, beharrezkoa da zati guztiak gainditzea. Bigarren zatian 10 puntu edo gehiago eta hirugarrenean 40 edo gehiago lortzen dituzten ikasleen behin betiko puntu kopurua bakarrik adieraziko da.

2. Azken nota zenbakien bidez adieraziko da; horretarako, batetik ehunera arteko eskala erabiliko da, eta dezimalak hamarren hurbilenera biribilduko dira, eta, distantzia berera egonez gero, goikora.

3.- 2/2006 Lege Organikoak bere 54.2 artikuluan finkatzen duenez, profesional mailako dantza titulua izatea, kontutan izango da sarbide probaren kalifikazioan.

Titulu profesionala aurkezten dutenentzako, azken kalifikazioa honela osatuko da: sarbide proba %80a + dantzako profesional mailako titulua %20.

Zazpigarrena. Berariazko sarrera-probako epaimahaia

1. Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako arduradunak izendatuko du epaimahaia, eta epaimahaiburuak eta hiru epaimahaikidek gutxienez osatuko dute.

2. Epaimahaiak laguntza eskatu ahal izango die egoki deritzen aholkulariei.

3. Honakoak izango dira epaimahaiaren egitekoak:

- a) Probak prestatzeko eta egiteko prozesua antolatzea. Probak bakarrak izango dira Euskal Autonomia Erkidego osoan.
- b) Ebaluazio-saioak antolatzea eta aktak egitea.
- c) Aurkezten diren erreklamazioak ebaztea.
- d) Sarrera-probak behar bezala egiten direla eta indarrean dagoen legedia betetzen dela zaintzea.

Zortzigarrena. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak

1. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek denbora eta bitarteko materialak egokitze eska dezakete, gainerako ikasleen aukera berak izateko.

2. Horretarako, ikasleek hezkuntza-premia bereziak dituztela egiaztatuko dute, dagokion egiaztagiria aurkeztuta.

**Bederatzigarrena. Proba**

1. Ekainaren 10etik 14ra bitartean izango dira Dantzako goi-mailako arte-ikasketak egiteko berariazko sarrera-probak. Gutxienez, hamabost egun lehenago jakinaraziko da data zehatza Dantzerti, Antzerki eta Dantza Goi Mailako Eskolaren webgunean.

2. Dantzerti, Antzerki eta Dantza Goi Mailako Eskolan izango da proba, Bilbon.

3. Epaimahaiak horrela erabakiko balu, argibide gehiago eman ahal izango ditu aurreko puntuen inguruan Dantzertiren Iragarki taulan eta Dantzerti, Antzerki eta Dantza Goi Mailako Eskolak duen web orrian.

4. Proba egiteko, izangaiek, beraien NANA edo dokumentu ofiziala eraman beharko dute. Beraiek eraman beharko dituzte proba egiteko behar duten materiala.

Hamargarrena. Probaren emaitzen argitalpena eta erreklamazioak

1. Proba egin eta bi egun baliadunera, behin-behineko kalifikazioak argitaratuko dira, Dantzerti, Antzerki eta Dantza Goi Mailako Eskolaren webgunean.

2. Ikasleek erreklamazioa aurkez dezakete probaren behin-behineko kalifikazioaren aurka, behin-behineko emaitzak argitaratu eta bi egun baliadunera, epaimahaiburuaren aurrean. Behin betiko kalifikazioak onartuta ebatziko dira erreklamazioak.

3. Behin-behineko kalifikazioak argitaratu eta astebetean argitaratuko dira gehienez behin betiko kalifikazioak.

4. Ikasleek gorako errekurtsioa jar dezakete behin betiko kalifikazioen kontra, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzako arduradunaren aurrean, kalifikazioak argitaratu eta hilabetean.

Hamaikagarrena. Probaren ziurtagiria

Proba gainditzen duten ikasleek ziurtagiria eskatu ahal izango dute, proba egiten duten ikastegian bertan, eta III. eranskineko ereduaren arabera izango da ziurtagiria. Inola ere ez zaie emango ziurtagiririk proba osorik gainditzen ez duten ikasleei: ez ziurtagiri partzialik, ez ariketa bakoitzeko kalifikazioen ziurtagiririk.

Hamabigarrena. Dokumentazioaren zaintza

Proba egiten den ikastegian bertan gordeko da probak egiteko sortzen den dokumentazioa, probak amaitu eta hiru hilabetez.



Hamahirugarrena. Toki kopurua eta tokiak esleitzeko modua

1. 2019-2020 ikasturteko deialdian, martxoaren 15eko 303/2010 Errege Dekretuak ezartzen dituen ratioak kontuan izanik, Koreografia eta Interpretazioa espezialitateko hogeita bost toki banatzeko probak egingo ditu Administrazio Akademikoak.
2. Onartuak izango badira, berariazko sarrera-proba gainditu behar dute ikasleek.
3. Probaren kalifikazioaren arabera esleituko dira tokiak, puntu kopururik handiena lortzen duen ikasletik hasita.
4. Berdinketarik badago, sarrera-probaren bigarren zatian puntu kopururik handiena lortzen duen ikasleak izango du lehentasuna, eta, berdinketarik badago sarrera-probaren bigarren zatiko puntu kopuruen artean ere, eskakizun akademikoan egiaztapenean kalifikaziorik onena lortzen duen ikasleak. Horretarako, honakoa izango da egiaztatu beharreko eskakizunen lehentasun-ordena: Batxilergoko batez besteko nota, Unibertsitatean sartzeko 25 urtetik gorakoentzako sarrera-probaren kalifikazioa eta hemezortzi urtetik gorakoentzako heldutasun-probaren kalifikazioa. Alde horretatik, "gai" kalifikazioa bostekotzat hartuko da.
5. Baldin eta izena emateko epea amaitu eta tokirik badago, probak ikastegian bertan gainditzen dituzten ikasleek izango dute lehentasuna, berariazko probaren kalifikazioaren arabera.
6. Tokirik gelditzen bada, berariazko sarrera-proba espezialitate bereko beste ikastegi batean gainditzen duten ikasleei esleituko zaie.
7. 1/2013 Errege Dekretuak, azaroaren 29koak, pertsona ezinduen eskubideen Lege Orokorreko berridatzitako testuak finkatzen duena jarraituz, eskeintzen diren ikaspostuen %3a, %33 ezintasun maila bat aitortuta duten ikasleei gordeko zaie, beti ere ikasketa betebeharrak betetzen dituztelarik eta berariazko sarbide proba gainditzen dutelarik. Hori horrela izateko, ezintasuna aitortuta duten ikasleek, ezintasun ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko dute inskripzioa egiterakoan, beste dokumentazioarekin batera.
8. Uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuak, goi-mailako eta errendimendu handiko kirolariei buruzkoak, 9.4. artikuluan xedatzen duenarekin bat, horrelako kirolariak direla egiaztatzen dutenentzat gordeko dira ikasle berrientzako tokien % 3, betiere, dagozkion eskakizun akademikoak betetzen badituzte eta sarrera-proba gainditzen badute. Gorde beharreko toki kopurua kalkulatzeko, ikastegi bakoitzak ikasle berrientzat eskaintzen duen guztizko toki kopurua hartuko da kontuan. Berariazko sarrera-proba espezialitateka, bideka, tresnaka edo estiloka egituratuta duten ikasketetan, zer espezialitate, bide, tresna



edo estilotan gainditzen duten ikasleek berariazko sarrera-proba, tokiak espezialitate, bide, tresna edo estilo horretan gordetzea ziurtatuko da.

9. Inola ere ez da esleituko tokirik, zer espezialitatetan gainditzen duten ikasleek sarrera-proba, beste batean.

10. Matrikula, Dantzerti, Antzerki eta Dantza Goi Mailako Eskolan egingo da uztaileko lehenengo hamabostaldian.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 28a.

Lucía Torrealday Berrueco
HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA



I. ERANSKINA

ANEXO I

**ARTE DRAMATIKO ETA DANTZA GOI-MAILAKO IKASKETAK EGITEKO SARBIDE-
PROBAN IZENA EMATEKO ESKABIDEA. 2019-20 IKASTURTEA**
**SOLICITUD DE INSCRIPCIÓN A LA PRUEBA DE ACCESO A LAS ENSEÑANZAS
ARTÍSTICAS SUPERIORES DE ARTE DRAMÁTICO Y DANZA. CURSO 2019-20**
AUKERATZEN DEN ESPEZIALITATEA / ESPECIALIDAD ELEGIDA

Arte dramatikoa Goi mailako ikasketak / Enseñanzas Superiores de Arte Dramático	
Dantza Goi mailako ikasketak / Enseñanzas Superiores de Danza	

(Dagokiona aukeratu / Señalar la opción elegida)

IKASLEAREN DATUAK / DATOS DEL ALUMNO O ALUMNA

Abizenak / Apellidos: _____ Izena / Nombre: _____

Jaioteguna / Fecha de nacimiento: _____ NAN / DNI: _____

Helbidea / Dirección: _____

Herria / Población: _____ PK / CP: _____ Lurraldea / Territorio: _____

Sakeleko telefonoa / Teléfono móvil: _____ Emaila / Email: _____

Proba zein hizkuntzatan egingo den / Idioma de realización de la prueba: Euskaraz En castellano

AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA / DOCUMENTACIÓN PRESENTADA

a. Batxilergo titulua / Título de Bachiller

Batxilergo Artistikoa (Arte Eszenikoak, Musika eta Dantza) / Bachillerato Artístico (Artes Escénicas, Música y Danza)

Beste Batxilergo batzuk / Otros Bachilleratos

b. Tasa ordaindu izaneko jatorrizko frogagiria

Acreditación del abono de tasa (justificante original)

c. Ondorio akademikoetarako batxilergo-tituluaren baliokidea den beste bat (adierazi zein)

Título equivalente al de Bachillerato a efectos académicos (Indica cuál)

d. 25 urtetik gorakoentzako unibertsitatara sartzeko proba

Prueba de acceso a la Universidad mayores de 25 años.

e. Heldutasun-proba edo LHko zati amankomuna

Prueba de madurez o parte común de FP

f. Dantza ikasketa profesional titulua

Título de enseñanzas profesionales de danza

g. Duela gutxiko argazki bat (idatzi izena eta bi abizenak atzealdean)

Fotografía reciente (con nombre y dos apellidos al dorso)

Tokia eta data / Lugar y fecha: _____

Sinadura / Firma

Datu pertsonalak babesteari buruzko Lege Organikoan ezarritakoa betetze aldera, eskabide-orka betetzeak esan nahi du interesdunak baimena ematen duela orrian idatzitako datuak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko fitxategi informatizatuetan gordetzeko. Datu horiek eskuratzeko, zuzentzeko, ezarretzeko eta aurka egileko eskubideak, Lege horretan aurreikusten direnak, Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzan balia daitezke

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal, la cumplimentación de la solicitud implica la autorización de la persona interesada para la incorporación de los datos consignados en ella a los ficheros informatizados del Departamento de Educación del Gobierno Vasco. Los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la mencionada Ley, se pueden ejercitar ante la Dirección de Innovación Educativa del citado Departamento de Educación.



II. ERANSKINA
PROBAREN EGITURA

	ARIKETA	OHARRAK	ARIKETA EGITEKO DENBORA	ARIKETAREN BALIOA	
1. ZATIA	Epaimahaiak proposatutako testu baten idatzizko analisisa		90 minutu	20 puntu	
2. ZATIA	A ARIKETA				
	A1	Ikasketa profesionaletako 6. mailako Dantza Klasikoko eskola	Epaimahaiak izendatutako aditu batek emango ditu.	90 minutu gehienez	20 puntu
	A2	Ikasketa profesionaletako 6. mailako Dantza Garaikideko eskola		90 minutu gehienez	20 puntu
	B ARIKETA				
	B1	Bariazioa	Ikasleak aukeratuko du.	3 minutu gehienez	20 puntu
	C ARIKETA				
C1	Inprobisazioa	Epaimahaiak proposatuko du.	3 minutu gehienez	20 puntu	

OHAR GARRANTZITSUAK

1. Berariazko proba gainditzen dutenen puntu kopuruari 6.4. paragrafoko merezimenduei dagokiena gehituko zaio.
2. Ikasleek nahi duten ordenan egingo dituzte B eta C ariketak